


Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika


GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA FUNDAZIOA

Foru Plaza 1, 48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)

Fundación nº 162 Sección 3ª

LIBRO DE ACTAS 2015





Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

**CONVOCATORIA PARA LA REUNIÓN DEL
PATRONATO DE LA FUNDACIÓN MUSEO DE LA
PAZ DE GERNIKA**

**GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA
FUNDAZIOKO PATRONATOAREN BILERARAKO
DEIALDIA**

Día: 25 de marzo de 2015 (miércoles)
Hora: 16.30
Lugar: Museo de la Paz de Gernika

Eguna: 2015eko martxoak 25 (asteazkena)
Ordua: 16.30
Lekua: Gernikako Bakearen Museoa

ORDEN DEL DÍA

GAI ORDENA

**1º.- LECTURA Y APROBACIÓN DEL ACTA DE LA
REUNIÓN ANTERIOR**

**1.-AURREKO BILERAREN AKTAREN
IRAKURKETA ETA ONARPENA**

**2º PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL CIERRE
DE LAS ACTIVIDADES, EL BALANCE Y LA
AUDITORÍA DE LAS CUENTAS DE 2014.**

**2.- 2014 ko EKINTZEN , BALANTZEAREN ETA
AUDITORIAKO DIRU KONTUEN ITXIERAREN
ONARPENAREN PROPOSAMENA.**

3º CUENTA DE CRÉDITO: SITUACIÓN

3.- KREDITU KONTUA: EGOERA

**4º PROPUESTA DE ACTIVIDADES Y
PRESUPUESTO DEFINITIVO PARA 2015**

**4.- 2015erako EKINTZA ETA BEHIN BEHINEKO
AURREKONTUAREN ONARPENERAKO
PROPOSAMENA**

**5º- INFORMES DE SITUACIÓN SOBRE LOS
TRABAJOS REALIZADOS EN TORNO A LOS
CONTENIDOS, LÍNEAS DEL TIEMPO Y ANTE-
PROYECTO MUSEOGRÁFICO (Requerirá una
reunión especial posterior)**

**5.- EDUKI, DENBORAREN LINEAK ETA
MUSEOGRAFIAKO AURRE-PROIEKTUKO
LANEN BERRI EMATEKO TXOSTENAK (Bilera
berezi bat egin beharko da beranduago
sakonki lantzeko)**

**6º PROPUESTA DE CESIONES Y DONACIONES
AL MUSEO (Libros de cartas de ASTRA,
Gernikazarra y GUINOVART)**

**6.- DONAZIO ETA ZESIO PROPOSAMENAK
(ASTRA enpresako karta liburuak,
Gernikazarra eta GUINOVART)**

7º RUEGOS Y PREGUNTAS

7.-GALDERAK ETA ERREGUAK

GERNIKA-LUMON, 2015eko Martxoaren 2a

-Jose María Gorroño Etxebarrieta-
Gernikako Bakearen Museoa Fundazioaren Presidentea



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

Patronatoaren akta zb 01/15

2015eko martxoaren 25eko Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa– Fundación Museo de la Paz de Gernika **PATRONATOAREN** akta.

Acta de la reunión celebrada por el **PATRONATO** de la Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa– Fundación Museo de la Paz de Gernika el veinticinco de marzo de 2015.


ASISTENTES / BERTARATUAK:

Patronatokideak/Miembros del patronato:

D. Andoni Iturbe Amorebieta (Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia)
D^a Aintzane Ezenarro (Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco)

D. Ignacio Etxebarria Etxeita (Fundazioaren Idazkaria / Secretario de la Fundación)
D^a. Iratxe Momoitio Astorkia (Museoko zuzendaria / Directora del Museo)

Asiste también convocada para la ocasión Rosa Bascaran en su condición de miembro de la asesoría contable de la Fundación al objeto de aclarar las cuestiones que se planteen acerca de las cuentas anuales y auditoría del 2.014 y el proyecto de presupuesto para 2.015.



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

En el Museo de la Paz de Gernika siendo las dieciseis horas y treinta minutos del veinticinco de marzo de dos mil quince, se reúne el Patronato de la Fundación, previa convocatoria cursada al efecto.

Excusó su asistencia don Imanol Agote que delega su voto en D^a Miren Aintzane Ezenarro, y D. Gonzalo Olabarria delegó su representación en Andoni Iturbe.

El orden del día de la reunión preveía la aprobación de la auditoria y las cuentas del 2.014 así como el presupuesto de 2.015 además de otras cuestiones relacionadas con las actividades del Museo y de la remodelación de los contenidos de parte del mismo.

Ante la inasistencia de los representantes del Ayuntamiento de Gernika-Lumo, cuya presencia resulta necesaria para lograr el quórum para la adopción de los acuerdos siendo las diecisiete horas y diez minutos se da por finalizada la reunión expresando los representantes del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral de Bizkaia su queja por la informalidad de la representación del Ayuntamiento de Gernika-Lumo, y su petición de que la próxima reunión sea en Bilbao una vez asegurada la presencia de los representantes del Ayuntamiento de Gernika-Lumo.

Gernikako Bakearen Museoa, bi mila eta hamabosteko martxoaren hogeitabosteko lau t'erdia direlarik, aurretiaz eginiko deialdia eta gero, Fundazioaren Patronatoa biltzen da.

Imanol Agote jaunak bere asistentzia zuzitzen du, Aintzane Ezenarro andereak eskuordetuko duelarik. Gonzalo Olabarria jauna ere Andoni Iturbe jaunak eskuordetuko du.

Bileraren gai ordenak aurreikusten zuen 2014ko kontuak eta auditoriaren onarpena egitea baita 2015eko aurrekontuarena ere, museoko ekintzekin erlazionatutako beste gai batzuekin batera, besteak beste, museoko edukien birmoldaketa.

Gernika-Lumoko ordezkarien asistentzia falta dela eta -- beharrezkoa delarik quorum nahikoa egoteko--arratsaldeko bostak eta hamar direlarik eta Eusko Jurlaritzaren Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak, bere kexa Gernika-Lumoko udaletxearen formaltasun faltagatik, adierazi ondoren, bilera bukatutzat ematen da. Eskatzen da hurrengo bilera Bilbon izatea eta ziurtatzea Gernika-Lumoko ordezkariak bertaratuko direla.

EL SECRETARIO / IDAZKARIA

Ignacio Javier Etxeberria Etxeita



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

**CONVOCATORIA PARA LA REUNIÓN DEL
PATRONATO DE LA FUNDACIÓN MUSEO DE LA
PAZ DE GERNIKA**

**GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA
FUNDAZIOKO PATRONATOAREN BILERARAKO
DEIALDIA**

Día: 14 de abril de 2015 (martes)
Hora: 11.00
Lugar: Sede del Gobierno Vasco Bilbao. Gran Vía
85 Sala A2

Eguna: 2015eko apirilak 14 (asteartea)
Ordua: 11.00
Lekua: Eusko Jaurlaritzaren egoitza Bilbon. Gran Vía
85, A2 gela

ORDEN DEL DÍA

GAI ORDENA

**1º.- LECTURA Y APROBACIÓN DEL ACTA DE
LAS REUNIONES ANTERIORES.**

**1.-AURREKO BILEREN AKTEN IRAKURKETA
ETA ONARPENA**

**2º PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL CIERRE
DE LAS ACTIVIDADES, EL BALANCE Y LA
AUDITORÍA DE LAS CUENTAS DE 2014.**

**2.- 2014 ko EKINTZEN , BALANTZEAREN ETA
AUDITORIARIKO DIRU KONTUEN ITXIERAREN
ONARPENAREN PROPOSAMENA.**

3º CUENTA DE CRÉDITO: SITUACIÓN

3.- KREDITU KONTUA: EGOERA

**4º PROPUESTA DE ACTIVIDADES Y
PRESUPUESTO DEFINITIVO PARA 2015**

**4.- 2015erako EKINTZA ETA BEHIN BEHINEKO
AURREKONTUAREN ONARPENERAKO
PROPOSAMENA**

**5º- INFORMES DE SITUACIÓN SOBRE LOS
TRABAJOS REALIZADOS EN TORNO A LOS
CONTENIDOS, LÍNEAS DEL TIEMPO Y ANTE-
PROYECTO MUSEOGRÁFICO (Requerirá una
reunión especial posterior)**

**5.- EDUKI, DENBORAREN LINEAK ETA
MUSEOGRAFIARIKO AURRE-PROIEKTUKO
LANEN BERRI EMATEKO TXOSTENAK (Bilera
berezi bat egin beharko da beranduago
sakonki lantzeko)**

**6º PROPUESTA DE CESIONES Y DONACIONES
AL MUSEO (Libros de cartas de ASTRA,
Gernikazarra, Luis Iriondo y GUINOVART)**

**6.- DONAZIO ETA ZESIO PROPOSAMENAK
(ASTRA enpresako karta liburuak,
Gernikazarra, Luis Iriondo eta GUINOVART)**

7º VARIOS


7. BESTE

8º RUEGOS Y PREGUNTAS

8.-GALDERAK ETA ERREGUAK

GERNIKA-LUMON, 2015eko Martxoaren 31a

-Jose María Gorroño Etxebarrieta-
Gernikako Bakearen Museoa Fundazioaren Presidente



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

Patronatoaren akta 02/15

**ACTA DE LA REUNIÓN CELEBRADA POR EL PATRONATO DE LA FUNDACIÓN
GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA – MUSEO DE LA PAZ DE GERNIKA, EL DIA
14 DE ABRIL DE 2015.**

=====

ASISTENTES

Presidente:

José María Gorroño (Ayuntamiento de Gernika-Lumo)

Vocales:

Begoña Landa (Ayuntamiento de Gernika-Lumo)
Imanol Agote (Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco)
Aintzane Ezenarro (Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco)
Andoni Iturbe (Bizkaiko Foru Aldundia - Diputación Foral de Bizkaia)

Secretario:

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita

Directora:

Iratxe Momoitio Astorkia

En la sede del Gobierno Vasco en Bilbao (Gran Vía 85), siendo las once horas del día catorce de abril de dos mil quince, se reúne el Patronato de la Fundación, previa convocatoria cursada al efecto.


Eusko Jaurlaritzak duen Gran Vía 85eko egoitzan batuta, bi mila eta hamabosteko apirilaren hamalaua delarik, aurretiaz deitutako Gernikako Bakearen Museoa Fundazioko Patronatoa batzen da.

**1º. – LECTURA Y APROBACIÓN DEL
ACTA DE LA REUNIÓN ANTERIOR.**

Respecto al acta de la reunión de 3 de diciembre de 2014, Andoni Iturbe manifiesta su disconformidad con el contenido del último apartado del punto de Varios por entender que el Patronato no ha acordado la

**1.AURREKO BILEREN AKTEN
IRAKURKETA ETA ONARPENA**

2014ko abenduaren 3ko bileraren inguruan, Andoni Iturbe jaunak bere ezadostasuna adierazten dut BESTE ataleko azken paragrafoarekin, ulertzen duelako patronatoak ez zuela onartu lan museografikoa Espai Visual



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

adjudicación del trabajo museográfico a la empresa Espa Visual, que sin embargo ha realizado el trabajo y se le ha abonado.

La Directora indica que dicho acuerdo deriva de la reunión anterior a la que, en nombre de la Diputación, asistió Asier Madarieta y en la misma el Patronato delegó en ella y en Asier Madarieta la determinación de a qué oferta adjudicar el trabajo, y tras el correspondiente estudio e informe, la propuesta fue a favor de Espai Visual. Recuerda que era perentorio resolver sobre la cuestión ya que se financiaba con una subvención que debía justificarse con actuaciones realizadas el 2014.

Tras debatirse esta cuestión se estima por los asistentes que es necesario mejorar la gestión de la adopción de los acuerdos, así como que teniendo en cuenta la ingente información que se remite se especifique con la remisión el rango de importancia de la misma.

Con estas observaciones el Patronato aprueba el acta de la reunión de 3 de diciembre de 2014.

Asimismo, el Patronato aprueba el acta de la reunión de 25 de marzo que por falta de quorum no pudo adoptar acuerdo alguno.

2.-APROBACIÓN DEL CIERRE DE LAS ACTIVIDADES, EL BALANCE Y LA AUDITORÍA DE LAS CUENTAS DE 2014

Se incorpora a la reunión Rosa Bascaran, técnica de la asesoría contable de la Fundación, que explica el contenido del documento de las cuentas anuales del 2014, cierre de actividades, balance y auditoría, destacando el resultado positivo del ejercicio en la cuantía de 51.729 euros,

entresak aurrera eramatea, dena den lana egin eta ordaindu egin da.

Museoko zuzendariak azaltzen du akordio hori bilera hori baino aurreragoko bilera batetatik datorrela, zeinetara, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean, Asier Madarieta jauna bertaratu zen eta zeinetan patronatoak zuzendariarengan eta Asierrengan delegatu zuten zein entresari emango zitzaion lana, zegokion txostena eta gero. Honen ondorioz Espai Visuali eman zitzaion. Zuzendariak gogoratzen du, beharrezkoa eta presazko gauza zela erabaki hori hartzea dirulaguntza bat jaso zelako eta egindako ekintzak 2014an justifikatu behar zirelako.

Gai honi buruz eztabaidatu ondoren, bertaratuek adierazten dute akordioen kudeaketa hobetu beharra dagoela, baita bidaltzen den informazio guztia kontutan izanda, azaldu beharko zela, hobeto, informazioa bidaltzean azken honen garrantzi maila.

Hobetu beharreko ohar hauen ostean, 2014ko abenduaren 3ko akta aprobaten du patronatoak.

Martxoaren 25ean egon zen eta quórum faltagatik aurrera egin ez zuen bileraren akta ere aprobaten da.

2.- 2014 ko EKINTZEN BALANTZEAREN ETA AUDITORIAKO DIRU KONTUEN ITXIERAREN ONARPENAREN PROPOSAMENA

Fundazioko Asesoriako Rosana Bascaran andreak bileran parte hartzen du 2014ko kontuen, ekintzen itxiera, balantzea eta auditoriako txostenak azaltzeko, urteko emaitza positiboa (51.729 eurotan) nabarmenduz. Emaitza positibo honen



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

que deriva fundamentalmente de las donaciones provenientes de Estados Unidos. Aclara que existen en el 2014 gastos que han sido subvencionados pero que el importe de las subvenciones se contabiliza en el 2015 porque la resolución de concesión se ha producido en 2015.

El Patronato aprueba las cuentas anuales, cierre de actividades, balance y auditoría del 2014, acordando destinar el excedente a compensar excedentes negativos de ejercicios anteriores.

3.-CUENTA DE CRÉDITO: SITUACIÓN.

Se informa por la Directora que es necesario formalizar una cuenta de crédito por un importe máximo de 80.000 euros (como se especificó en el acta anterior) para afrontar situaciones temporales de iliquidez (especialmente los primeros meses del año cuando aún no se ha abonado el dinero de las instituciones), acordándose su formalización ya mismo en Kutxabank.

Andoni Iturbe recuerda que en la reunión anterior se aprobó un presupuesto provisional con el objetivo de presentarlo a las entidades fundadoras a fin de agilizar el abono de la subvención anual y no entiende porque no se ha tramitado ese presupuesto a las entidades fundadoras.

La Directora indica que para recibir las subvenciones las entidades exigen además del presupuesto provisional el acta aprobada y la auditoría del ejercicio anterior, todo ello enviado los originales firmados, por lo que hasta el día de hoy era imposible enviarlo.

El Patronato acuerda analizar esta cuestión a fin de determinar el

arrazoia Estatu Batuetatik egon diren donazioengatik izan da. Berak azaltzen duenez ere, egon badaude 2014ko zenbait gastu, 2014ko dirulaguntzen bidez kubritu izan direnak, baina dirulaguntza hauen ebazpena 2015ean izan denez, 2015ean kontabilizatu beharko dira.

Patronatoak 2014 urteko kontuak, ekintzen itxiera, balantzea eta auditoria onartzen ditu, soberakinak aurreko urteetako soberakin negatiboak konpentsatzeko erabiliko direlarik.

3.- KREDITU KONTUA: EGOERA

Zuzendariak adierazten du, beharrezkoa dela 80.000 € tako kreditu kontu bat egitea (aurreko bileran azaldu zen bezala) aldizkako likido faltako egoera ekiditeko (bereziki urteko lehenengo hilabeteetan erakundeetako dirua heldu arte) Kutxabankekin jarraian bere formalizazioa egitea onartzen delarik.

Andoni Iturbek gogoratzen du aurreko bileran behin behineko aurrekontu bat onartu zela, fundazioko erakundeei aurkezteko asmoz, urteroko dirulaguntza arintzeko, eta ez duela ulertzen zergaitik ez den hori fundazioko erakundeekin bideratu.

Museoko zuzendariak adierazten du, dirulaguntzak jaso ahal izateko, erakundeek aurrekontuaz gain, auditoriako txostena eta akta originala sinatuta eskatzen dutela, dena batera bidalita, horregaitik gaur arte ezin izan da bete.

Patronatoak gai hau sakonkiago jorratuko duela adierazten du, urte honen

35



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

procedimiento y documentación necesaria para antes de finalizar el ejercicio solicitar las subvenciones del siguiente año.

bukaera baino lehen, beharrezkoa dokumentazioa prest izateko, hurrengo urteko dirulaguntzak bideratzeko asmoz.

4.- ACTIVIDADES Y PRESUPUESTO DEFINITIVO PARA 2015.

Aintzane Ezenarro cree interesante disponer de un plan estratégico a 4 años y que en la documentación se distingan las diferentes líneas de actividad de la Fundación, con el coste que cada una supone y así conste en los presupuestos del 2015.

Imanol Agote manifiesta que el presupuesto no recoge previsiones de ingresos derivados de convenios cuya suscripción se plantea como el de Donostia 2016. La directora explica que en el presupuesto aparece una partida denominada otros ingresos y que sería aquí donde se especificarían.

La Directora indica que el presupuesto recoge lo derivado de la financiación de los patronos y la actividad garantizada si bien en su ejecución el presupuesto sufre modificaciones en función de nuevas actividades y subvenciones que se puedan realizar en el ejercicio.

Imanol Agote plantea que a la hora de aprobar el presupuesto se indique que puede ser modificado en base a acuerdos que se adopten en relación a las actividades con financiación externa.

El Patronato aprueba el presupuesto y las actividades para 2015, que asciende a un total de ingresos y gastos de 455.500 euros (se adjunta).

5.- INFORMES DE SITUACIÓN SOBRE LOS TRABAJOS REALIZADOS ENTORNO A LOS

4.- 2015erako EKINTZA ETA BEHIN BEHINEKO AURREKONTUAREN ONARPENERAKO PROPOSAMENA

Aintzane Ezenarroren eritziz, interesgarria litzateke lau urtera begirako plan estrategiko bat izatea museoak. Honekin batera, komenigarria litzateke Fundazioko ekintza ezberdinak ondo zehaztea baita hauen kostua ere, horrela agertuz 2015eko aurrekontuetan.


Imanol Agotek aipatzen du aurrekontuak ez dituela zehazten, hitzarmen ezberdinen ondorioz egon daitezkeen diru sarreraren aurreikuspenak, adibidez Donostia 2016ko kasuan gertatzen den moduan. Zuzendariak azaltzen du aurrekontuan badagoela atal bat bestelako diru sarrerak deritzona eta hor islatuko zirela.

Zuzendariak azaltzen du aurrekontuan patronoen finantziazioarekin lor daitekeen dirua baita ekintzetatik datorren dirua zehazten dela, nahiz eta aurrekontuak bere ekintzian aldaketak izan ditzakeen ekintza berri edota dirulaguntzen arabera.

Imanol Agotek aipatzen du aurrekontua onartzerakoan, zehaztu beharko litzatekeela kanpoko finantzazioa edo akordioak direla eta, aurrekontua aldatua izan daitekeela.

Patronatoak 2015erako aurrekontua eta 2015erako ekintzak onartzen ditu, diru sarrera eta gastuetan 455.00€ takoa delarik. (Atxekitzen da)

5.- EDUKI, DENBORAREN LINEAK ETA MUSEOGRAFIKO AURRE-PROIEKTUKO LANEN BERRI



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

CONTENIDOS, LÍNEAS DEL TIEMPO Y ANTEPROYECTO MUSEOGRÁFICO.

La Directora informa de los dos trabajos realizados, uno el anteproyecto museográfico realizado por Espai Visual, y el otro trabajo realizado por varios historiadores referido a las líneas del tiempo, indicando que ambos deberían de ser analizados en una próxima reunión monográfica por parte del Patronato.

Aintzane Ezenarro plantea la conveniencia de aplazar cualquier decisión sobre esta cuestión hasta que se ponga en marcha por el Gobierno Vasco el Instituto de la Memoria, en cumplimiento del mandato aprobado con amplia mayoría en el Parlamento Vasco.

El Patronato acuerda posponer la decisión en tanto se ponga en marcha el Instituto de la Memoria, que se prevé para el mes de junio.

6.-CESIONES Y DONACIONES AL MUSEO.

En lo referente a las distintas donaciones propuestas, el Patronato estima necesario realizar una reflexión más profunda, enmarcada en un plan estratégico, acerca de los criterios respecto a las obras de arte y la Fundación y, por tanto, pospone la decisión respecto a la oferta de donación de obra pictórica realizada por Guinovart y la cesión de los libros copias de carta de Astra por parte de Gernikazarra.

Respecto a la donación planteada por Luis Iriondo atendiendo a su condición de testigo del bombardeo de Gernika y, por tanto, memoria viva del mismo se acepta la donación.

EMATEKO TXOSTENAK

Museoko zuzendariak aurrera eraman diren bi lanen berri ematen du, hots, Espai Visualek egindako museografiako aurreproiektua eta historialariek garatutako denboraren lerroei dagokiena. Honen bestez, adierazten du lan hauek sakonki aztertu beharko zirela modu monografiko baten patronatoaren hurrengo bilera baten.


Aintzane Ezenarrok gai honen inguruko erabakiak, Eusko Jaurlaritzak (Legebiltzarreko gehiengo zabal baten ondoren onartutakoa) jarriko duen Memoriaren institutua martxan jarri arte atzeratzeko eskatzen du.

Patronatoak, beraz, ekainerako aurreikusten den Memoriaren Institutua martxan jarri arte atzeratzea erabakitzen du.

6.- DONAZIO ETA ZESIO PROPOSAMENAK

Proposatutako donazioei dagokienez, patronatoak hausnarketa sakonago bat egin beharko litzatekeela deritzo, plan estrategiko baten barruan, Fundazioa eta arte lanen ingurukoa. Beraz, Guinovart-en eskaintza piktorikoa eta ASTRAko karta liburuen kopien zesioa dela eta (Gernikazarrakoen partetik) geroragoko uztea erabakitzen du.

Luis Iriondo jaunak planteatutako bere lan obren donazioari dagokionez, bombardaketako testigu lez, eta gai honen memoria bizia den einean, donazioa onartzea erabakitzen du.



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

7.-VARIOS.

.- Congreso "Musealización de la memoria"

A la vista de la escasa documentación facilitada, el Patronato acuerda que por la Directora se solicite a las organizadoras que concreten por escrito la colaboración que piden a la Fundación.

.- Convenio con Donostia 2016.

La Directora informa que el convenio se presenta al amparo del acuerdo marco suscrito y se formula a petición de DSS 2016, que propone la realización conjunta de actividades en las que también participaría Gernika Gogoratzuz y que se enmarca en la línea de arte y paz que se trabaja en la Fundación, si bien el contenido en el que estaban interesados para la colaboración ha sido concretado DSS 2016.

Tras analizar la documentación existente –y estando de acuerdo con el contenido-- el Patronato acuerda solicitar a DSS2016 que presente una memoria de actividades con su presupuesto e informe jurídico que avale dicho convenio y facturas, antes de tomar ninguna decisión

Se da por finalizada la reunión a las trece horas, extendiéndose la presente Acta que firma conmigo el Presidente, de que certifico.

7. BESTE

"Oroimenen museogintza" kongresua

Patronatoari eskaini zaion Dokumentazio eskasa aztertu ondoren, patronatoak erabakitzen du antolatzaileei datu gehiago eskatzea baita kolaboraziorako eskatzen zaigun idatzi bat, Fundazioak balora dezan.

Donostia 2016koekin hitzarmena

Zuzendariak aipatzen du oingo hitzarmena bere egunean sinatu zen hitzarmenaren babespean egingo zela, DSS 2016k eskatuta. Hitzarmen honekin Artea eta bakearen inguruko zenbait ekimen aurrera ateratzea izango litzateke Gernika Gogoratzuzekin batera. DSS2016-koek zehaztu zuten interesa zuten gaien edukien ingurukoa.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, eta edukiarekin ados egonik, Patronatoak, DSS2016ri ekintzen memoria bat bere aurrekontu, faktura eta hitzarmen hori bermatzen duen txosten juridikoa aurkezteko eskatzea erabakitzen du, inongo erabakirik hartu aurretik..

Bilera bukatutzat ematen da eguerdiko ordu batak direlarik horren guztiaren akta eginda Presidenteak eta biok sinatu dugu eta nik ziurtatu dut

PRESIDENTEA/EL PRESIDENTE

IDAZKARIA/EL SECRETARIO


José María Gorroño


Ignacio Javier Etxebarria Etxeita

Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika
Foru Plaza, 1 - E-48300 GERNIKA (LMO) - Tel. 94 522 32 33
E-mail: info@museo.gernika.com



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

**CONVOCATORIA PARA LA REUNIÓN DEL
PATRONATO DE LA FUNDACIÓN MUSEO DE LA
PAZ DE GERNIKA**

**GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA
FUNDAZIOKO PATRONATOAREN BILERARAKO
DEIALDIA**

Día: 23 de noviembre de 2015 (lunes)
Hora: 12.00
Lugar: Museo de la Paz de Gernika

Eguna: 2015eko azaroak 23 (astelehena)
Ordua: 12.00
Lekua: Gernikako Bakearen Museoa

ORDEN DEL DÍA

GAI ORDENA

**1º.- PRESENTACIÓN DE LOS NUEVOS
PATRONOS**

1.-PATRONO BERRIEN AURKEZPENA

**2º SITUACIÓN DEL 2015: ACTIVIDADES,
CUENTAS.**

2.- 2015EKO EGOERA: EKINTZAK, KONTUAK...

**3º CUENTA DE CRÉDITO: NECESIDAD DE
CONFORT LETTER DE LOS PATRONOS**

**3.-KREDITU KONTUA: PATRONOEN CONFORT
LETTER-EN BEHARRA**

**4º PROPUESTA PLIEGO DE CONDICIONES
SERVICIO LIMPIEZA (2016-2017)**

**4.- GARBITASUNEKO ZERBITZURAKO PLEGU
BERRIEN PROPOSAMENA (2016-2017)**

5º- CONVENIO CON DONOSTIA 2016

5.- DONOSTIA 2016KOEKIN HITZARMENA

**6º PROPUESTA DE ACTIVIDADES Y
PRESUPUESTO PARA 2016**

**6.- 2016RAKO EKINTZA ETA AURREKONTU
PROPOSAMENA**

7º PLAN ESTRATÉGICO: PROPUESTA

7.- PLAN ESTRATEGIKOA : PROPOSAMENA

8º DONACIONES

8.-DONAZIOAK

9º OTROS


9.-BESTE

10º RUEGOS Y PREGUNTAS

10.- GALDERAK ETA ERREGUAK

GERNIKA-LUMON, 2015eko Azaroaren 16-a

-Jose María Gorroño Etxebarrieta-
Gernikako Bakearen Museoa Fundazioaren Presidentea



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

ACTA DE LA REUNIÓN CELEBRADA POR EL PATRONATO DE LA FUNDACIÓN GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA – MUSEO DE LA PAZ DE GERNIKA, EL DÍA 23 DE NOVIEMBRE DE 2015.

=====

ASISTENTES

Presidente:

José María Gorroño (Ayuntamiento de Gernika-Lumo)

Vocales:

María Uribe (Ayuntamiento de Gernika-Lumo)

Iñaki Gorroño (Ayuntamiento de Gernika-Lumo)

Imanol Agote (Eusko Jaurlaritzza – Gobierno Vasco)

Aintzane Ezenarro (Eusko Jaurlaritzza – Gobierno Vasco)

Gonzalo Olabarria (Bizkaiko Foru Aldundia - Diputación Foral de Bizkaia)

Andoni Iturbe (Bizkaiko Foru Aldundia - Diputación Foral de Bizkaia)

Secretario:

Jon Goikoetxea Etxebarria

Directora:

Iratxe Momoitio Astorkia

En la sede de la Fundación Museo de la Paz de Gernika siendo las doce horas del día veintitrés de noviembre de dos mil quince, se reúne el Patronato de la Fundación, previa convocatoria cursada al efecto.


Gernikako Bakearen Museoa Fundazioaren egoitzan batuta, bi mila eta hamabosteko azaroaren hogeitahiruko hamabiak direlarik, aurretiaz deitutako Gernikako Bakearen Museoa Fundazioko Patronatoa batzen da.

1º. – PRESENTACIÓN DE LOS NUEVOS PATRONOS.

Tras las elecciones forales y municipales, se renueva el Patronato de la Fundación Museo de la Paz de

1.PATRONO BERRIEN AURKEZPENA

Foru eta udal hauteskundeen ostean, Gernikako Bakearen Museoa Fundazioko patronatoa berritzen da



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo de la Paz de Gernika

Gernika, cesando en sus cargos D. Ignacio Javier Etxebarria Etxeita como secretario. D. Jose Luís Bilbao Eguren y Dña Miren Josune Ariztondo Akarregi por parte de la Diputación Foral de Bizkaia así como Dña Begoña Landa Torre y Dña Naiara Urberuaga Erkoreka por parte del Ayuntamiento de Gernika-Lumo.

Toman posesión de sus nuevos cargos y son presentados como nuevos Patronos de la Fundación Museo de la Paz de Gernika las siguientes personas: D. Unai Rementeria Maiz y Dña Lorea Bilbao Ibarra, que junto a D. Gonzalo Olabarria Villota, D. Andoni Iturbe Amorebieta y D. Asier Madarieta Juaristi (quienes continúan con su cargo de patrono de la legislatura anterior) en representación de la Diputación Foral de Bizkaia, D. Iñaki Gorroño Etxebarrieta, Dña. María Uribe Gerendiain (nuevos cargos) y D. Jose María Gorroño Etxebarrieta (mantiene el cargo y continúa como Presidente de la Fundación) por parte del Ayuntamiento de Gernika-Lumo. D. Jon Goikoetxea Etxebarria toma el relevo como nuevo secretario de la Fundación. En el caso del Gobierno Vasco se mantienen, por ahora, los mismos patronos.

El Sr Imanol Agote explica que la Fundación Museo de la Paz de Gernika ha estado dependiente de diferentes departamentos en el Gobierno Vasco. Empezó dependiendo de Presidencia, para pasar posteriormente a Cultura. Ahora el Gobierno Vasco se plantea, ya desde los presupuestos de 2016, pasar de nuevo la Fundación Museo de la Paz de Gernika a que dependa de Presidencia (en las próximas reuniones se abordará lo que ello supone al tener que modificarse los estatutos)


Dña Aintzane Ezenarro comenta que recientemente de ha creado un nuevo

honako aldaketa hauekin: Ignacio Javier Etxebarria jaunak, orain arte idazkari lanak egin dituen, bere kargua uzten du. Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari dagokionez, Jose Luís Bilbao Eguren jaunak eta Miren Josune Ariztondo andereak bere kargua uzten dute. Gernika-Lumoko udalaren kasuan, Begoña Landa Torre andereak eta Naiara Urberuaga Erokoreka andereak bere kargua uzten dute.

Honenbestez, Fundazioko kargu berriak aurkeztuak dira, besteak beste: Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari gisa, Unai Rementeria Maiz jauna, Lorea Bilbao Ibarra anderea (kargu berriak), Gonzalo Olabarria Villota jauna, Andoni Iturbe Amorebieta jauna eta Asier Madarieta Juaristi jauna (azken hiru hauek kargua mantentzen dute). Gernika-Lumoko udalaren ordezkari gisa, Iñaki Gorroño Etxebarrieta jauna, María Uribe Gerendiain anderea (kargu berriak) eta Jose María Gorroño Etxebarrieta jauna (bere kargua mantentzen du eta Fundazioko presidentea izaten jarraitzen du). Jon Goikoetxea Etxebarria jaunak, Fundazioko idazkari lanaren erreleboa hartzen du. Eusko Jaurlaritzaren kasuan patrono berdinak mantentzen dira oraingoz.

Imanol Agote jaunak azaltzen duenez Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa, Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinen pean egon dela bere sorreratik, hasiera Lehendakaritzapean eta geroxeago Kulturapean. Orain, Eusko Jaurlaritzak —2016ko aurrekontuetatik hasita— Gernikako Bakearen Museoa Lehendakaritzapean egotea planteatzen du (hurrengo bileretan landuko da honek suposatzen duen estatuto aldaketa).

Aintzane Ezenarro andereak azaltzen duenez, Eusko Jaurlaritzak ente



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

ente autónomo del Gobierno Vasco, Instituto de la Memoria Gogora, quien tiene mandato parlamentario de gestionar toda la política pública de memoria de Euskadi. Un Instituto de la memoria que nace tras una ley y que tendrá más de 29 personas en representación a Eudel, Diputaciones forales.... El Gobierno Vasco, ha decidido, por tanto, que sea Gogora quien gestione y coordine dichas políticas públicas de memoria. Por ello se ve necesario, que sea, a partir de ahora, Gogora el interlocutor por parte del Gobierno en lo relativo a la Fundación Museo de la Paz de Gernika, al igual que ocurrirá en los casos de La Casa de la Paz de Aiete, el Centro Memorial de Víctimas del Terrorismo etc.

El Presidente de la Fundación preguntó las razones para ese cambio, a lo que la Sra Ezenarro contesta que ha sido tras una ley y por mandato parlamentario como se ha decidido que sea Gogora quien coordine todas las políticas públicas de memoria de Euskadi, y por ende, la relación con la Fundación Museo de la Paz de Gernika.

El Sr Presidente de la Fundación y Alcalde de Gernika-Lumo pregunta por los retratos municipales, queriendo saber por qué no se reflejan en ellos personas muertas etc durante la guerra civil. Contesta la Sra Ezenarro comentando que el Instituto de la memoria Gogora abarca tres momentos clave, como son, la guerra civil, el franquismo y la memoria reciente. En el tema de los retratos se ha comenzado con la parte más reciente, es decir, la relativa a los años 1960-2010. El empezar a analizar los retratos pasados es una labor que van a realizar próximamente, pero que, por razones obvias del paso del tiempo, esta parte más antigua llevará más

autónomo berri bat sortu du, hots, Gogora memoriaren institutua. Gogorak, Euskadin egiten den memoriaren inguruko politika publiko guztia kudeatzearen legebiltzarraren agindua du. Lege baten ostean jaiotzen den Memoriaren Instituto honek, erakunde eta gizartearen 29 ordezkari izango ditu (Eudel, Foru Aldundiak...). Eusko Jaurlaritzaren erabakiz, beraz, Gogorak kudeatuko ditu memoriaren politika publiko guztiak. Horrexegaitik beharrezkoa ikusten da, hemendik aurrera, Gogora izatea, Eusko Jaurlaritzaren partetik, Gernikako Bakearen Museoa Fundazioarekin interlokuzio lanak beteko dituen; beste zenbait kasutan bezala, besteak beste, Aieteko Bakearen Etxea, Terrorismoaren Biktimen zentru memoriala...

Fundazioko presidentek aldaketa hauek emateko arrazoiak zeintzuk diren jakin nahi ditu. Ezenarro andereak erantzuten dio, lege baten ostean eta legebiltzarraren aginduz, Gogora izango dela, Euskadiko memoriaren inguruko politika publikoak kudeatuko dituen. Eta beraz, Gernikako Bakearen Museoa Fundazioarekin erlazioa izango duena.

Fundazioko Presidentea eta Gernika-Lumo alkateak, udalerrietako erretratuei buruz galdetzen du, jakin nahian zergaitik ez diren agertzen gerra zibil garaian hildako pertsonak. Ezenarro anderek erantzuten du, esanez Gogora memoriaren Institutoak historiako hiru momento landuko dituela, hots, gerra zibila, frankismoa eta oraintsuko memoria. Erretratuen kasuan, oraintsuko partearekin hasi da, hots, 1960-2010 urte bitarteko garaiarekin. Lehenagoko erretratuak lantzen, laster hasiko dira baina, jakin badakite, denboran gero eta atzerago joan, gero eta zailagoa izango dela, eta denbora gehiago beharko dela horretarako.



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

tiempo.

Ya que, en breve, se deberá hacer un cambio en los estatutos de la Fundación, para que como representantes del Gobierno Vasco asistan tres personas, no desde Cultura sino desde Presidencia (previsiblemente Aintzane Ezenarro, Mónica Hernando y Jonan Fernández), se plantea que los miembros del patronato revisen los estatutos de la Fundación para —en el caso de requerirse— poder hacer todas las modificaciones necesarias en los estatutos a la vez.

2.-SITUACIÓN DE 2015: ACTIVIDADES, CUENTAS

Se incorpora a la reunión Rosa Bascaran, técnica de la asesoría contable de la Fundación, que explica el contenido del documento del balance de los primeros ocho meses del 2015 (se adjunta), destacando el buen resultado —hasta el momento— del ejercicio.

